

## **1999KO IRAILAREN 29AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeitabederatzia

**HILABETEA:** Iraila

**URTEA:** Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Lau (3)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUA:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Ignacio Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1.- FAKTURAK**

6.849.975 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiek dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

Gobernu batzordeko kideak erabaki dute, hemendik aurrera Gobernu Batzordera pasatuko direla bakarrik 500.000 pezetatik goragoko fakturak.

### **2.- OBRA ZIURTAGIRIAK**

a.- Oria ibaia bideratzeari buruzko obrei dagokion bosgarren, seigarren, eta zazpigarren ziurtagiriak.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 7.627.674, 7.975.932 eta 8.631.829 pezetako Oria ibaia bideratzeari buruzko obrei dagokion bosgarren, seigarren, eta zazpigarren ziurtagiriak hurrenez hurren.

b- Gernika Pasealekuko frontoiari buruzko obrei dagokion lehen ziurtagiria.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 8.585.665 Gernika Pasealekuko frontoiari buruzko obrei dagokion lehen ziurtagiria.

c- Gernika Pasealekuko frontoiari buruzko obrei dagokion zortzigarren ziurtagiria.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 103.811.234 Gernika Pasealekuko frontoiari buruzko obrei dagokion zortzigarren ziurtagiria.

d- Joan XXIII espaloia birmoldatzeari buruzko obren likidazioa.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 4.420.571 Joan XXIII espaloia birmoldatzeari buruzko obren likidazioa.

### **3.- LEHEN ERABILERAKO BAIMENA:**

a) Goi-Etxek eskatutako 35-37 etxebizitzentzat lehen erabilerako baimena egindako eskaera.

Goi-Etxek eskatuta eta teknikoaren eta hirigintza batzordearen aldeko txostenaren arabera, Oriamendi kaleko 35-37 etxebizitzentzat lehen erabilerako baimena ematea erabaki da.

b) Goi-Etxek eskatutako 39-41 etxebizitzentzat lehen erabilerako baimena egindako eskaera.

Goi-Etxek eskatuta eta teknikoaren eta hirigintza batzordearen aldeko txostenaren arabera, Oriamendi kaleko 39-41 etxebizitzentzat lehen erabilerako baimena ematea erabaki da.

### **4.-ABAL ITZULKETA**

a) Guipasa S.A.k eskatutako abal itzulketa Loinatz baselizako bidea asfaltatzeagatik.

Ezagutzera eman da Guipasa S.A.k eskatutako abal itzulketa Loinatz baselizako bidea asfaltatzeagatik. Hirigintza batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez, 202.040 pezetako abala bueltatzea erabaki da.

b- Guipasa S.A.k eskatutako abal itzulketa 94. urtean kaleak asfaltatzeagatik.

Ezagutzera eman da Guipasa S.A.k eskatutako abal itzulketa 94. urtean kaleak asfaltatzeagatik. Hirigintza batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez, 138.762 pezetako abala bueltatzea erabaki da.

c- Manuel Rapadok eskatutako abal itzulketa hilerriko hilobiak birmoldatzeagatik.

Ezagutzera eman da Manuel Rapado jaunak eskatutako abal itzulketa hilerriko hilobiak birmoldatzeagatik. Hirigintza batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez, 138.568 pezetako abala bueltatzea erabaki da.

Hemendik aurrera Alkatearen Ebazpenaren bidez itzuliko dira abalak. Beraz, gai hau gobernu batzordera pasatu beharrik ez da izango.

## **5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.